

Lontxo Oihartzabal jn.
Juan Carlos Arraibi jn.
Gaizka Gabantxo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Otxoa jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

04/04 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko ekainaren 3ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: ikusteko urritasunak dituzten ikasleak hezkuntzan integratzeko Laguntza Zentroak (Itsuen Baliabidetegiak) Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa sortzen dituen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio ikusteko urritasunak dituzten ikasleak hezkuntzan integratzeko Laguntza Zentroak (Itsuen Baliabide Zentroak) Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa sortzen dituen dekretu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

Era berean, Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren memoria ere bidali da.

I.- AURREKARIAK:

Otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak haxe dio 26. artikuluan: *“Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak elkarlanean arituko dira ikastetxeekin irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko”* eta Laguntza Zerbitzuen zereginen artean honako hauek aipatzen ditu: *“Baliabideen kokagune izatea, ikastetxeen eskura egon arren, beren izaera edo neurriengatik berauetan eduki ezin daitezkeenetan”* eta *“pedagogiazko baliabide eta irakas materialen dokumentazio eta mailegutzarako une gisa aritzea”*

Era berean, zera dio legeak, Administrazioak eskola-bilgunea baino jardueraremu zabalagoko zein murriztagoko Laguntza Zerbitzuak eratu ahal izango dituela, beti ere aurrerago ezarritako koordinazio-arauak errespetatuz.

Itsua eta anbliopeak eskolaratzeko egungo Baliabide Zentroak irailaren 25eko 318/1984 Dekretuak sortu zituen eta IBTen (Itsuen Baliabidetegi) funtzionamendua baimentzeko 1984ko urriaren 10eko Aginduak garatu zuen dekretua. Nolanahi ere, hala dekretua nola agindua Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea, Euskal

Eskola Publikoaren Legea eta Hezkuntzaren Kalitateko Lege Organikoa baino aurreragoak dira, hortaz, ez zaizkio egokitzen egungo Euskal Hezkuntza Sistemaren Antolamenduari.

Bestalde, azken urteotan EAEko Hezkuntza Bereziak aldaketa handiak ezagutu ditu eta aldaketa hauek honako hauetan arautu dira: ekainaren 23ko 118/1998 Dekretua, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena; 1998ko uztailaren 30eko Agindua, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolaratzeko irizpideak eta baliabideen hornidura arautzen duena; eta, azkenik, 1998ko uztailaren 24ko Agindua, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena arautzen duena.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren 14. artikulua haxe dio: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egoki iritzi dituen hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu foru aldundiekin eta toki korporazioekin, eta bai irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin eta erakundeekin ere, EAEko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun egokiagoa emateko xedearekin, edozein motatako hezkuntza-premia berezi antzemateko, diagnostikatzeko eta arreta eskaintzeko lankidetzan jardunda. Aipatu dekretu horri jarraiki, 2001eko uztailaren 16an lankidetzan hitzarmena sinatu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta ESPANIAKO ITSUEN ERAKUNDE NAZIONALAREN (ONCE) artean.

Hori guztia kontuan izanik, dekretu proiektu honek itsuak eta anbliopeak eskolaratzeko EAEko Baliabide Zentroak birrantolatu eta eguneratu nahi ditu.

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek hiru kapitulutan banatutako 16 artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra, xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta eranskin bat ditu.

I. Kapitulumua (1. artikulutik 3. artikulura): artikulua hauetan ikusteko urritasunak dituzten ikasleak eskolaratzeko Laguntza Zentroak Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa sortzen dira; zentro hauen jarduera-eremua EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxetara mugatzen da eta zerbitzu hauen laguntza eta aholkularitzaren hartzaileak nortzuk diren adierazten da.

II. Kapitulumua (4. eta 5. artikulua): kapitulu honek dio zentro hauen xede nagusia dela ikasle horiek integratzea ez bakarrik eskola eremuan baita ere gizartean. Bestalde, hezkuntzako eta hezkuntza erkidegoko profesionalentzako aholkularitza eta ikasle itsuentzako edo ikusteko urritasunak dituztenentzako laguntza bereizten dira.

III. Kapitulumua (6. artikulutik 16. artikulura): zentro hauen egitura organikoa eta antolamendua finkatzen du. Zehatzago esateko, 6. artikulua zentroen menpekotasun organiko eta funtzionala ezartzen du; 7. artikulua gobernu organoak arautu ditu eta

8.etik 13.era bitarteko artikuluek organoen osaketa eta eginkizunak jaso dituzte. 14. artikuluek zentroetako plantillako langileak definitzen ditu eta zentroen osaketa I. eranskinean finkatu da. 15 eta 16. artikuluek diote Sailak aurrekontuan finkatuko dituela zentroon eginkizunak gauzatzeko behar diren hornidurak eta dekretuz arautuko direla zentro bakoitzeko lanpostu zerrendak.

Lehen eta bigarren xedapen gehigarriek diote zentro hauek laguntzaileak (1. xedapen gehigarria) eta transkriptore eta material egokitzailerik edota bestelako langile espezializatuak (2. xedapen gehigarria) izan ditzaketela. Hirugarren xedapen gehigarriak xedatu duenez, plantillako langile bakoitzaren lana (lanpostuan 6 urtez jarraian jardun ondoren) baloratzeko Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariak izendaturiko Batzorde Tekniko bat eratuko da, eta batzorde honek ezarritako irizpideen arabera baloratuko du langileen lana.

Xedapen Iragankor Bakarrak dio une honetan IBTetan (Itsuen Baliabidetegi) diharduten langileek eginkizun berberekin eta egungo administrazio egoera berean jarraituko dutela, harik eta kasuan kasuko deialdia argitaratu arte.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe utzi ditu irailaren 25eko 318/1984 Dekretua eta dekretu honetan ezarritakoaren kontrako xedapen guztiak.

Azken xedapenatarik lehenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskumena ematen dio dekretua garatzeko behar diren xedapenak emateko eta bigarrenak, aldez, dekretua indarrean jartzeko data zehaztu du.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Zioen azalpenean esan dugunari jarraiki, dekretu proiektu honek IBTen antolamendu eta funtzionamendua eguneratzen du, aldakuntza handiak egon direlako eremu honetan, eta IBTak sortzen dituen dekretua eta hori garatzen duen 84ko Agindua (IBTen funtzionamendua baimentzen duena) LOGSE bera baino askoz aurreragokoak direlako. Badirudi, beraz, IBTen antolamendu eta funtzionamendua dekretu berri baten bidez eguneratu behar direla. Dena dela, ohar batzuk egin nahi dizkiogu dekretu proiektu honi:

- ✓ **Zioen azalpena:** dekretu proiektuaren izenburuan IBTen sorrera aipatzen da eta beste izen bat ematen zaie, alegia, *ikusteko urritasunak dituzten ikasleak hezkuntzan integratzeko Laguntza Zentroak (Itsuen Baliabidetegiak)*. Izenburu luzea da eta, gainera, parentesi artean sartzen du aurreko izena. Izendapen nahaspilatsu hau behin eta berriro errepikatzen da dekretuan zehar. Izan ere, dekretuaren xedea da lehendik dagoen egitura bat birrantolatzea eta eguneratzea, beraz, ez dirudi egokia denik sorreraz hitz egitea. Izen berberari euts dakioke, baina, aldatu nahi izanez gero, komeniko litzateke laburragoa bilatzea.

Zioen azalpenaren amaieran Euskadiko Eskola Kontseiluari kontsultatu zaiola adierazi beharko litzateke.

- ✓ **3. artikulua:** artikulua honetan IBTen laguntza eta aholkularitzaren hartzaileak nortzuk diren arautu da. Nolanahi ere, ez da familia aipatzen. Eta esan beharra dago familiarekin hertsiki lan egiten dela hezkuntza hobea eta orientazio goiztiarra lortzeko, gainera, kasu batzuetan, defizientzia detektatzeaz batera, familia astero egon ohi da zentroan. Egia bihurtu den zirkunstantzia hau 1984ko urriaren 10eko Aginduan jaso zen jada, 3. artikulua haxe baitzioen IBTen eginkizunei buruz: **“...jarrera eredu eta pautak erraztu eta emango dizkiete ikasleen familiei...”**
- ✓ **4. artikulua:** artikulua honek dio *“Taldeen agente guztiei lagundu eta aholkuak emango dizkiete ...”*, baina ez da taldeen berregituraketari buruzko inolako aipamenik egiten, beraz, zein pertsona edo kolektibori buruz ari den azpimarratu beharko luke.
- ✓ **8. artikulua:** Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa arautzen du eta Kontseiluan plantillako hiru ordezkari daudela azpimarratzen du. Horietako bat idazkaria da, hizpidea duena, baina ez hautespidea. Plantilla desberdintasun handiak daude lurralde historiko batzuetan eta besteetan (Bizkaian Araban baino ia bi aldiz gehiago), beraz, Zuzendaritza Kontseiluko ordezkarien kopuru desberdintasun hori hobeto islatuko lukeen mekanismo bat finkatu beharko litzateke.
- ✓ **9. artikulua:** 9 a), 11 d) eta 13 b) artikuluetan Zentroko Ekintza Plana eta Urteko Ekintza Plana biak aipatzen dira. Urteko Ekintza Planaz dihardutela uste dugu, beraz, bateratu egin beharko litzateke erredakzioa.

b) atalean *“...Zentroko zonakako jarduera”* dio eta zonakako terminoa nahasgarria izan daitekeela pentsatzen dugu, IBTen jarduera-eremua bere lurraldea delako.
- ✓ **10. artikulua:** Zuzendaritza Kontseiluaren deialdia egitea proposatzen da kideen portzentaje jakin batek hala eskatzen duenean, zeren ez dirudi aski denik Zuzendaritza Kontseiluaren bilkura Berrikuntza Pedagogikoko Lurralde Buruzagitzak deitzen duen aldietara soilik mugatzea.
- ✓ **12. artikulua:** artikulua honek informatikako euskarrien aholkularia eta material egokitzaila aipatzen du, baina figura hau ez da existitzen eranskineko lanpostuen zerrendan. Beraz, zein figuraz ari garen eta plantillan sartu behar ote den argitu beharko litzateke.
- ✓ **14. artikulua:** praktikan ez du zentzu handirik etapakako aholkulariak ezartzea, eta, are gutxiago, eremukakoak Bigarren Hezkuntzan. Izan ere, IBTetako langileei eskatu behar zaiena zera da, curriculum berezia izatea ikasle hauen beharrezan erantzun diezaieten. Azken finean, ez da batere naturala etapakako aholkulariak ezartzea, zeren IBTetako langileek ikasle itsuentzako edo ikusteko urritasunak dituztenentzako ukimen-espezialistak izan behar baitute, eta ez irakasgai jakin ba-

teko espezialistak. Ildo horretatik, aholkulari bat zentro edo herri batera doanean berdin lagun diezaioke bi urteko ume bati, lehen hezkuntzako bati edo DBHko Institutuko ikasle bati, edozein delarik ere irakasgaia. Hortaz, ez du zentzurik zentro edo herri batera bi aholkulari bidaltzea, irakasgaiari buruzko ezagutza ez baita funtsezkoa kasu honetan.

Idazkari-dokumentalista figura ere ageri da, baina gaur egun ez da existitzen, beraz, bere eginkizuna zein den zehaztu beharko litzateke.

- ✓ **Bigarren xedapen gehigarria:** xedapen honek dio IBTek “*transkriptore eta material egokitzaille edota bestelako langile espezializatuak izan ditzakete, material espezifikoaren produkzio eta egokitzapen beharrianak kontuan izanik*”. IBTetan transkriptore eta material egokitzailleak daude eta langile hauek oposizio bidez lortu dute lanpostua. Deigarria bada ere, figura hau funtzionatzen ari da gaur egun (Bilbon bi transkriptore daude, hala ere, plaza bakarra betetzeko oposizio deialdia egin zen), baina ez da ageri I. eranskineko lanpostuen zerrendan. Hortaz, ez litzateke “*izan dezakete*” esan beharko, hasteko transkriptore eta egokitzailleak ezinbestekoak direlako eta, bigarrenik plaza hauek jada sortuta eta okupatuta daudelako.
- ✓ **Hirugarren xedapen gehigarria:** xedapen honek dio langileen lana ebaluatuko dela lanpostuan sei urtez jardun ondoren. Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeko 33. artikulua jaso du hori, baina lanpostuko baldintza moduan ezarri da, eta ez lanpostuko ebaluazio prozesu huts gisa, bestelako kolektiboek ez baitute ebaluazio hau egin beharrik. Beste laguntza zerbitzuetako aholkulariekin alderik egon ez dadin, egungo erredakzioa aldatu edo ordeztu eta honela geratu beharko litzateke: “*Irakasle Kidegoen 2/1993 Legeko 33. artikulua 4. paragrafoari jarraiki, lanpostuan 6 urtez jarraian jardun ondoren, langileen lana ebaluatuko da, araudi bidez ezarritako irizpide eta prozedurak kontuan izanik; horrela beraz, langile hauek muga jakinik gabe jarrai dezakete lanpostu horietan, hala ere, nahi badute irakaspostuetara itzul daitezke postuak betetzeko ohiko lehiaketan bidez*”.

Azkenik, dekretua berrikusteko eskatzen dugu, erredakzioan, artikuluen zenbakikuntzan eta generoaren erabileran aurkitu ditugun akatsak zuzen daitezen.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko ekainaren 7an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.